

Ermuko Ateneo Libertarioa



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Ermuko talde libertarioak 2003an egindako deialdi publikotik sortu zen Ermuko Ateneo Libertarioa.

- Zenbat kide zarete?

Talde kide kopurua ez da finkoa. Elkartea erregulatuta ez dagoenez, bakoitza interesatzen zaion ekitaldietan inplikatzeko da, interesaren arabera.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Kultura eta balio libertarioak zabaltzeko leku fisikoa sortzea zen gure asmoa. Hau da, baldintza beretan pertsona guztien parte-hartzea bul-

tzatu nahi dugu, gizarte justuagoa eraikitzeko. Bertan, gizon eta emakume guztiak askeak izan daitezten eta zentzuzko bizitza baten onurez disfruta dezaten, egungo sistema kapitalistaren autoritarismo eta kaosean ez bezala.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astero biltzen gara, beste talde eta lagunekin konpartitzen dugun lekuan, Eskilarapekon.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Oso ekitaldi ezberdinak, hitzaldiak

edo bideo-forumak, esaterako, eta beste ekitaldi kultural batzuk ere: antzezlanak, poesia irakurketak, kontzertuak, literatur-kluba, beti ere pentsamendu librearen ikuspuntutik.

- Txangoak egiten dituzue?

Bai, helburu sozial, kultural eta ludikoak dituzten irteera batzuk egiten ditugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

ermukoateneolibertario@yahoo.com helbidean, 28 posta-kutxatilan edo antolatzen dugun ekitaldietako batean parte hartuta.

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

CERVECERIA
ZHHCN

ZYTİK

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna